



2021KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAREN BEHIN BETIKO EBAZPENAREN ONDORIOZKO LANPOSTU-UZTE ETA LANPOSTU-JABETZEI BURUZKO JARRAIBIDEAK

2022ko martxoaren 14an, BOEn argitaratuko da Berdintasuna, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuaren 2021ko martxoaren 2ko Agindua, zeinaren bidez behin betiko ebazten baita honako lekualdatze-lehiaketa hau: Justizia Administrazioiko Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko Kidegoetako eta Eskaletako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa, 2020ko irailaren 30eko Aginduaren bidez iragarria.

Agindu horren bosgarren artikulua arabera:

"Bosgarrena.- Jardunean, zerbitzu berezietan edo senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioei dagokienez, betiere funtzionario horiek lehiaketa honetako ezein kidegotan edo eskalatan berriro sartzen ez badira (ez dira hor sartzen behin-behinean zerbitzu aktibora itzuli diren funtzionarioak), ondoko egun hauetan utziko dute lanpostua: Prozesu eta Administrazio Izapidetzakoek 2021eko otsailaren 22an, astelehena, Prozesu eta Administrazio Kudeaketakoek eta Laguntza Judizialekoek 2021eko otsailaren 26an, ostirala"

Indarrean dagoen legedia betetze aldera, eta karrerako funtzionarioak lekuz aldatzeak batetik eta bitarteko funtzionarioek lanpostuak uzteak, bestetik, lantokiko zerbitzuaren beharrezanetan eragin ditzaketen disfuntzioak murrizte aldera, JARRAIBIDE hauek ematen dira:

1. Plazak esleitzea.

a) **Plantilla organikoa** duten organo judizialen kasuan, lehiaketa bidez organo judizial berean lortutako plazak esleitzeko hurrenkera honako hau da:

1. Bete gabe dauden plaza hutsak
2. Bitarteko langileek betetzen dituzten plaza hutsak.
3. Zerbitzu-eginkizunetan dauden titularrek betetzen dituzten plaza hutsak. Zerbitzu eginkizun bat baino gehiago izanez gero, eskalafoiaren irizpidea hartuko da kontuan.
4. Behin-behineko atxikipenean dauden titularrek betetzen dituzten plaza hutsak.

b) **Bulego Judizial Berria** ezarrita dagoen organo judizialen kasuan, esleipena lekualdatze-lehiaketan lortutako lanpostura eta dotaziora egingo da.

2. Bitarteko funtzionarioak.

Esleitutako plazak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek titularra lanpostuaz jabetu aurreko egunean utziko dute lanpostua.

3. Zerbitzu-eginkizuna.

Plazaz jabetzeko epeei dagokienez, lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen duen funtzionarioentzat hauxe joko da "Funtzionarioaren herrizat": lanean diharduen herria.

4. Zerbitzu aktiboan berriro hastea eta behin-behineko atxikipena.

Plazaz jabetzeko epea (20 egun baliodun) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hasiko da (2021eko otsailaren 19an argitaratuko da). Lanpostuaz jabetzeko epea ez da ordainduko.

5. Kasu guztietan.

- Destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen duten karrerako funtzionarioek, 2020ko otsailaren 20ra arte, egun hori barne, helbide elektroniko honen bidez: personal_jus_provision@euskadi.eus, jakinarazi beharko diote Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, lortutako lanpostura joango diren eta, kasu horretan, lanpostuaz jabetuko diren eguna.
- Karrerako funtzionarioek lanpostua jabetzan hartzen duten aurreko egunean, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak lehiaketan esleitutako lanpostuak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioen lanpostu-uztea formalizatuko du, alde batera utzita hauek oporretan dauden edo baimena edo lizentzia hartuta dauden.
- Lekualdatze-lehiaketan plaza esleitu zaien eta lizentzia edo baimena hartuta dauden funtzionarioek (euskara-liberazioak eta liberazio sindikalak aparte utzita) lizentzia amaitu eta hurrengo egun baliodunean utziko dute lanpostua.

Euskara ikasteko liberazioen eta sindikatu-liberazioen kasuan, inolako lizentziarik hartuta ez dauden gainerako kasuen une berean utzi beharko da lanpostua.

Aurreko destinoan baimenduta bai baina hartu ez diren lizentziak eta baimenak bertan behera geldituko dira.

- Lanpostu-uzteak azken orduan egin beharko dira, uzten duten destinoari dagokion EATean. Lanpostuaz lehen orduan jabetuko dira, destino berriari dagokion EATean.

Azken xedapena: indarraldia.

Jarraibide hauek une honetako lekualdatze-lehiaketan izango dituzte ondorioak.